

GENERO BERDINTASUNEKO PLANA

Departamentua: 10 - KULTURA, LANKIDETZA, GAZTERIA ETA KIROL DEPARTAMENTUA
Atala: 1001 - Kultura, Lankidetza, Gazteria eta Kirol Zerbitzu Orokorrak
Programa: 010 - Kultura, Lankidetza, Gazteria eta Kirol Zerbitzu Orokorrak
Funtzionala: 920 - Administrazio orokorra

GENERO BERDINTASUNEKO PLANA

Programaren genero garrantzia: Handia

Programak ukitzen duen kolektiboa:

Populazio osoa

Programak ukitutako gaitasuna(k):

Aisia eta kirolerako aukera izatea

Beharraren deskribapen xehatua:

Genero berdintasunerako politikak zeharkakotasuna du ezaugarri, eta, beraz, politika publiko guztiek hura sustatzeko eta bermatzeko neurriak eta jarduerak jaso behar dituzte. Ildo horretan, unitate honek neurriak eta jarduerak sartu nahi ditu berdintasun politikak kontratazio eta laguntza publikoak lortzen dituzten eta Departamentuarekin elkarreragiten duten eragileen artean zabaltzeko.

Kuantifikazioa: 0,00 (% 0,00)

Ordainketa kredituak: 0,00 (% 0,00)

Datozen urteetako gastuak: 0,00 (% 0,00)

GENERO BERDINTASUNeko PLANA

Departamentua: 10 - KULTURA, LANKIDETZA, GAZTERIA ETA KIROL DEPARTAMENTUA
Atala: 1010 - Kultur Ondarearen Zuzendaritza Nagusia
Programa: 100 - Artxiboetako eta Agiri Ondareko Zerbitzua
Funtzionala: 336 - Ondare historiko-artistikoaren babesa eta kudeaketa

GENERO BERDINTASUNeko PLANA

Programaren genero garrantzia: Handia

Programak ukitzen duen kolektiboa:

Pertsona helduak

Programak ukitutako gaitasuna(k):

Gizartean eta politikan parte hartu ahal izatea

Beharraren deskribapen xehatua:

Gizarte gipuzkoarrean, kulturaren praktikaren alorreko emakume eragileen presentzia eta ikusgarritasuna handitu eta indartzea

Kuantifikazioa: 0,00 (% 0,00)

Ordainketa kredituak: 0,00 (% 0,00)

Datozen urteetako gastuak: 0,00 (% 0,00)

GENERO BERDINTASUNEKO PLANA

Departamentua: 10 - KULTURA, LANKIDETZA, GAZTERIA ETA KIROL DEPARTAMENTUA
Atala: 1010 - Kultur Ondarearen Zuzendaritza Nagusia
Programa: 110 - Ondare Historiko-Artistikoko, Bildumetako eta Museoetako Zerbitzua
Funtzionala: 333 - Kultur ekipamenduak eta museoak

GENERO BERDINTASUNEKO PLANA

Programaren genero garrantzia: Handia

Programak ukitzen duen kolektiboa:

Populazio osoa

Programak ukitutako gaitasuna(k):

Ordaindutako lan bat egitea baldintza egokietan

Beharraren deskribapen xehatua:

Partehartzean berdintasuna bultzateko ekintzak proposatuko dira museotan. Gordailuan egiten diren pertsonen kontratu txikien gehiengo handi bat emakumezkoena da zeren eta zaharberritzaileen lanbidea oso feminizatua baitago.

Kuantifikazioa: 0,00 (% 0,00)

Ordainketa kredituak: 0,00 (% 0,00)

Datozen urteetako gastuak: 0,00 (% 0,00)

GENERO BERDINTASUNeko PLANA

Departamentua: 10 - KULTURA, LANKIDETZA, GAZTERIA ETA KIROL DEPARTAMENTUA
Atala: 1020 - Nazioarteko Lankidetzako Zuzendaritza Nagusia
Programa: 200 - Nazioarteko Lankidetzak
Funtzionala: 327 - Herritarren bizikidetzak sustatzea

GENERO BERDINTASUNeko PLANA

Programaren genero garrantzia: Handia

Programak ukitzen duen kolektiboa:

Populazio osoa

Programak ukitutako gaitasuna(k):

Gizartean eta politikan parte hartu ahal izatea

Beharraren deskribapen xehatua:

Genero-ekitateak defendatu eta sustatzea ekonomiaren, gizartearen edo politikaren alorretan.

Kuantifikazioa: 0,00 (% 0,00)

Ordainketa kredituak: 0,00 (% 0,00)

Datozen urteetako gastuak: 0,00 (% 0,00)

GENERO BERDINTASUNEN PLANA

Departamentua:	10 - KULTURA, LANKIDETZA, GAZTERIA ETA KIROL DEPARTAMENTUA
Atala:	1030 - Kultur Sustapena eta Gazteriako Zuzendaritza Nagusia
Programa:	300 - Haur, nerabe eta gazteen sustapena
Funtzionala:	232 - Gizarte sustapena

GENERO BERDINTASUNEN PLANA

Programaren genero garrantzia: Handia

Programak ukitzen duen kolektiboa:

Haurrak eta nerabeak

Programak ukitutako gaitasuna(k):

Etxeko ingurunea segurua eta egokia izatea

Beharraren deskribapen xehatua:

Haurtzaroa, nerabezaroa eta gaztaroa berezko ezaugarriak dituzten bizi-etapak dira, baita ikuspegi feministatik ere.

Haurtzaroan sozializazio bitarra gertatzen da, sexua-generoa-sexualitatea etengabe oinarrituta. Sozializazio-prozesu hori, lehenik eta behin, familian gertatzen da, eta, ondoren, indartu egiten da gizarte- eta hezkuntza-eremuetan.

Nerabezaroan, areagotu egiten dira haurrek haurtzaroan barneratu dituzten portaeren arteko desberdintasunak. Bereizketa horren oinarria botere-harreman sexistak dira, eta nerabeen ongizatean eragiten du. Neskek eta nerabeek presio estetiko handiagoa sentitzen dute, eta beren gorputzak eta sexualitatea kontrolatzeko mekanismo handiagoak izaten dituzte. Errealitate hori guztia haurrek eta nerabeek indarkeria sexista bizitzen hastean ikusten da.

Gaztaroan, aurreko guztiari lanaren sexu-banaketa gehitu behar zaio. Horregatik, emakume gazteek zailtasun gehiago izango dituzte emantzipazio-prozesuan, eta, gainera, zaintza-lanetan lan-karga handiagoa izango dute.

Horregatik guztiagatik, Haurrak, Nerabeak eta Gazteak Sustatzeko Zerbitzuak errealitate horiek kontuan hartzen ditu bere ekintzak hedatzerakoan, bai haurrekin, nerabeekin eta gazteekin zuzenean esku hartzeko edukiak eraikitzean, bai eremuko profesionalekin lotutako ekintzetan, bai ahaidetasun positiboak sustatzean.

Kuantifikazioa:	126.406,64	(% 1,60)
Ordainketa kredituak:	126.406,64	(% 1,60)
Datozen urteetako gastuak:	0,00	(% 0,00)

GENERO BERDINTASUNeko PLANA

Departamentua: 10 - KULTURA, LANKIDETZA, GAZTERIA ETA KIROLO DEPARTAMENTUA
Atala: 1030 - Kultur Sustapena eta Gazteriako Zuzendaritza Nagusia
Programa: 310 - Kultur Sustapena eta Hedapena eta KMK
Funtzionala: 334 - Kulturaren sustapena

GENERO BERDINTASUNeko PLANA

Programaren genero garrantzia: Ertaina

Programak ukitzen duen kolektiboa:

Pertsona helduak

Programak ukitutako gaitasuna(k):

Aisia eta kirolerako aukera izatea

Beharraren deskribapen xehatua:

Datu-bilketa hobetzeko beharra antzematen da, genero-arrakalak detektatzeko eta horiek ezabatzean aktiboki eragiteko, batez ere programazioaren eta beken eta dirulaguntzen arloetan.

Kuantifikazioa:	22.000,00	(% 0,12)
Ordainketa kredituak:	22.000,00	(% 0,13)
Datozen urteetako gastuak:	0,00	(% 0,00)

GENERO BERDINTASUNEN PLANA

Departamentua:	10 - KULTURA, LANKIDETZA, GAZTERIA ETA KIROL DEPARTAMENTUA
Atala:	1040 - Kirol Zuzendaritza Nagusia
Programa:	400 - Jarduera fisikoa eta Kirolaren sustapena
Funtzionala:	341 - Kirolaren sustapena

GENERO BERDINTASUNEN PLANA

Programaren genero garrantzia: Handia

Programak ukitzen duen kolektiboa:

Populazio osoa

Programak ukitutako gaitasuna(k):

Aisia eta kirolerako aukera izatea

Beharraren deskribapen xehatua:

2025ean, Gipuzkoako Soziometroak helduen datuetan erakusten du ariketa fisikoa eta/edo jarduera fisikoa erregulartasunez egitea Gipuzkoako emakumeen artean (ehuneko 4,6 puntu)nabarmen igo dela. Gizon eta emakumeen arteko aldea ehuneko 2,1 puntukoa da, eta nabarmen murriztu da azken bi urteetan. Bestalde, nahi luketen ariketa fisikoa egitea lortzen ez duten emakumeen ehuneko jaitsi egin da, eta ehuneko 0,4 hamarren jaitsi da 2021eko datua, pandemiatik irten zen unea. Nahi luketen ariketa fisikoa egiteko zailtasunari dagokionez, gizon eta emakumeen arteko aldea ehuneko 7,8 puntukoa da 2025ean.

Eskola adineko kirolari dagokionez, generoen arteko alde nabarmena dago Jolashezi (-26) eta Multikirola (-22) programetan parte hartzeari dagokionez. Programa horiek dira Gipuzkoako kirol hastapenaren ardatz nagusia, eta ehuneko 20 puntutik gora daude. Aurreko ikasturtearekin alderatuta, emakumeen parte hartzea handitu da, baina genero arrakala mantendu da.

Klubek eskoletan duten parte hartzeak genero arrakala handia izaten jarraitzen du (% 28 neskak dira), eta 44 ehuneko puntutan kokatzen da programatik kanpoko jardueretan, 4 puntu gutxiago. Jaiotza tasak behera egin duen arren, emakumeen parte hartzeak gora egin du: aurreko ikasturtean baino 130 neska gehiago dago, eta nabarmenezkoa da futboleko eta eskubaloiko modalitateen gorakada, % 12ko hazkundearekin. 2024-25 ikasturtean, Eskola kiroleko programaren barruan klubek egiten dituzten jarduera osagarrietan, ehuneko 4 puntuko jaitziera izan dela adierazi du. Genero aldea ehuneko 2 puntu murriztu da (ehuneko 14 puntu) aurreko ikasturtearekin alderatuta. Eremu federatuari dagokionez, egiaztatu da 2025ean berdintasun plana 14 federazioek dutela, aurreko urtean baino 5 federazio gehiago. Gipuzkoako 45 federazioetatik, hauteskunde prozesuak amaitzeko zain, 13k emakumeek okupatutako presidentziak dituzte, % 29k; horrek esan nahi du autonomia erkidegoetako, estatuko eta Europako federazioetan ikusitakoa baino askoz ere estandar handiagoa dagoela. Nolanahi ere, horri dagokionez, generoen arteko aldea ehuneko 42 puntukoa da. Kirol klubei dagokionez, aztertutako 85 klubetatik 15etan emakumeak dira buru; beraz, kasu honetan aldea ehuneko 60 puntukoa da.

2023/24 denboraldian federatutako lizentziei dagokionez, Gipuzkoan emandako federatutako lizentzien % 26,2 emakumeei egokitu zitzaizkien. Adierazle horretan, generoen arteko aldea ehuneko 48 puntukoa da, eta ehuneko 2 puntu murriztu da. Aurreko denboraldian baino 1.259 lizentzia gehiago (+%7) eman ziren emakume kirolarientzat. Aurreko denboraldiarekin alderatuta, teknikari lizentzien kopuruak % 4 egin du behera. Genero arrakala ehuneko 70 puntutan mantentzen da. Epaileei emandako lizentzietan, generoen arteko aldea ere handia da: 48 ehuneko puntu (6 ehuneko puntu txikiagoa).

2024an, Kirolgi Fundazioak taldeei emandako laguntza guztien % 53,57 emakumezkoen taldeei esleitu zitzaien. Bestalde, eliteko emakume kirolariei emandako beken zenbatekoa emandako laguntza guztien % 50era iritsi da. GFAREN 2024ko ekitaldiko laguntzen bidez kirol federazioei banatutako laguntzetatik, emakumeei zuzendutako jardueretarako 525.456 €-ko laguntzen zenbatespena dago, hau da, guztizkoaren % 24. Kirol klubentzako laguntzen kasuan (elite-jarduera kenduta) 265.306 dira, guztizkoaren % 31.

2024an, finantzatutako 58 ekitalditatik, 16 emakumeek bakarrik parte hartu zuten.

Kuantifikazioa:	1.030.797,94	(% 2,35)
Ordainketa kredituak:	1.030.797,94	(% 4,78)
Datozen urteetako gastuak:	0,00	(% 0,00)